

Espediente moetea: Administrazio kontratazioa

Kontratua: Zerbitzu kontratua, prozedura negoziatuaren bidezkoa, publizitateagaz. (Art. 154 eta 158) 30/2007 Kontratu Legea.

Espediente zenbakia: **2011-10 IRAGARKIAK ARGITARATZEA.**

AHOLKULARITZA, LAGUNTZA ETA ZERBITZU KONTRATUEN BALDINTZA
TEKNIKOEN ORRIAK PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZKOA.

1.- Kontratuaren helburua:

Bermeoko Udalak egunkarietan eta irratietan argitaratu beharreko iragarkiak, publizitate enpresa baten bitartez argitaratzeko kontratua.

2.- Helburuak / funtzioak:

Bermeoko Udalak egunkarietan eta irratietan argitaratu behar dauzan iragarkiak argitaratzea, beherago azaltzen dan prozedura eta epeak beteaz.

Ohiko iragarkiak ondorengoetan argitaratu ohi dau Udalak: EL CORREO, DEIA, GARA, BUSTURIALDEKO HITZA. Hala eta guztiz ere, Udalak zehaztuko dau kasu bakoitzean, zeintzuk komunikabideetan argitaratu behar diran iragarkiak.

EGUNKARI OFIZIALetan eta BERMEOKO ITSUKI IRRATlan egiten diran iragarkiak espresuki kontratu honetatik kanpo geratzen dira.

3.- Proiektua bideratzeko planteatutako lan metodologia

Publizitate enpresak, Udalak bidalitako iragarki guztiak argitaratzeko konpromisoa hartzen dau, horretarako, udal sailetatik bidaliko jakozan iragarkien testua eta zeintzuk komunikabideetan argitaratuak izan behar diran zehaztuko jako.





Iragarkien hizkuntza finkatzea (euskaraz soilik edo helebietan) udalaren esku geratzen da, eta horrela entregatuko dira iragarkiak (euskaraz soilik edo helebietan).

Iragarkiak, Publizitate enpresara bidaltzen diran egunetik hasita, denbora laburrenean argitaratuak izan beharko dira, gehienez hiru(3) eguneko epean.

Bermeon, 2010ko irailaren 20an.

Erosketa saila

